


ORMAIZTEGIko

IRISGARRITASUN UNIBERSALEKOPLAN

INTEGRALA

2024



2. LIBURUKIA

ESPARRUA: BIDE PUBLIKOA



ORMAIZTEGIKO UDALA

Egileak:



Javier Regalado Herrero
Itziar RodríguezOyarbide



LURRALDE PLANGINTZA,
ETxebizitza
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES

ORMAIZTEGIko

IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO PLAN INTEGRALA

PLANARAN AURKIBIDE OROKORRA

1.- ALDERDI OROKORRAK ETA ARAUDIA.....	1. LIBURUKIA
2.- ESPARRUA: BIDE PUBLIKOA.....	2. LIBURUKIA
3.- ESPARRUA: UDAL ERAIKINAK.....	3. LIBURUKIA
4.- ESPARRUA: GARRAIOA.....	4. LIBURUKIA
5.- ESPARRUA: KOMUNIKAZIOA ETA SEINALETIKA....	5. LIBURUKIA
6.- PLANAREN SINTESIA.....	6. LIBURUKIA
7.- KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIO PLANA.....	7. LIBURUKIA

2.- ESPARRUA: BIDE PUBLIKOA

LIBURUKIAREN AURKIBIDEA

1.- AURKEZPENA

2.- AZTERKETA EREMUA

3.- ANALISIA ETA DIAGNOSIA

4.- HIRI-ALTZARI TIPOLOGIAK

5.- JARDUKETA - PLANA

5.1.- ESKU-HARTZE PROPOSAMENA

5.2.- LEHENESTEKO IRIZPIDEAK

5.3.- ETAPA PLANA

5.3.1.- Lehentasunak

5.3.2.- Ondorengo faseak

6.- BALORAZIO EKONOMIKOA

6.1.- Aurrekontua etapaka

6.2.- Aurrekontu orokorra

I ERANSKINA: KALE TARTEEN TXOSTENAK..

II ERANSKINA: ZONALDE LIBREEN TXOSTENAK

- DOKUMENTAZIO GRAFIKOA

1.- AURKEZPENA

Espazio publikoa hiria osatzen duen udalerriko edozein eremu da. Kaleak, plazak, parkeak eta lorategiak dira. Gure kulturen, giza harremanak gertatzen diren espazioa da tradizionalki. Historian zehar espazio publikoaren erabilerak aldaketak jasan ditu. Kaleak ibilgailu kopuru handi batez okupatuak izan dira oinezkoen espazioa hartuz. Horrek espazio publikoaren eleaniztasuna sortu du askotan. Horregatik beharrezkoa da oinezkoen eta ibilgailuen arteko oreka sortzea, lehena bultzatuz eta bigarrenarentzat ordezeko neurriak aurkituz.

Helburua da oinezkoa eroso eta segurtasunez mugitu ahal izango den hiri batera itzultzea, espazio publikoaz gozatu ahal izateko eta harro egoteko.

“Bide Publikoetarako Ekimen Plana” egiteko, honako lan sistematika erabili da: lehenik, oztopoak sortzen duten egoerak identifikatu eta diagnostikatu, jarraian, irisgarritasun irizpideak aplikatuz, proposatu, deskribatu eta ekonomikoki kuantifikatu beharrezkoak diren jarduketak oztopoak kentzeko eta egokitzeko.

Ekimen Plan honek bi momentu nagusi edo lan bereziak ditu, lehenik, irisgarritasun egoerari buruzko jarduketa gunean ezarritako bideen azterketa zehatza egitea; ondoren, Ekimen Plana lantzea bideratuko duten lehentasun ibilbideak aukeratzea.

Honako liburukiaren edukia bigarren lan horren emaitzetan oinarritzen da, hau da, ibilbideen proposamena, oztopoen eta aurkitutako gabezien diagnosiarekin, beharrezkoak diren jarduketekin batera jarraitu beharreko irizpideekin eta horien balorazio ekonomikoarekin lagunduta. Honako Plana osatzen duen dokumentazioa ondorengo hau da:

- **Jarduketa eremua**

Aztertu beharreko hiri guneak mugatzea eta arrazoi topografikoengatik onartzen ez diren guneak zehaztea, industria guneak direlako edo aldaketa urbanistikoak jasan ditzaketelako.

- **Bide Publikoetako egungo egoeraren analisisa.**

Aztertutako bide eta espazio publikoaren irisgarritasunaren egungo egoeraren ezaugarri nagusiak deskribatzen dira, arazo larrienak eta hauen izaera deskribatuz. Bide publikoaren eta aztertutako elementuen irisgarritasun baldintzak aztertzen dira.

- **Lehenesteko irizpideak**

Irizpide hauek ibilbideen proposamena zehazteko erabiltzen dira eta lehentasunen ordena inplikaturako udal zerbitzuen arabera, hiritarren interesak eta egungo egoera kontuan hartuz.

- **Esku-hartze proposamenak**

Irisgarritasun Planean aztertutako ibilbide eta guneen deskribapena. Proposatutako egokitzapenak gauzatzeko beharrezkoak diren obra-lanen balioespen ekonomikoa. Aurrekontuen laburpena.

- **Etapia plana**

Planaren gauzatzearen etapan zehaztapena, bide publikoen obra-lanen eta aurreikusitako baliabide ekonomikoen udal irizpideen arabera. Etapa bakoitzaren deskribapena eta bertan dauden kaleen zerrenda.

- **Gutxi gorabeherako aurrekontua**

Proposatutako obrak gauzatzeko beharrezkoak diren lanen balioespen ekonomikoa. Faseka egituraturako bide publikoetarako aurrekontuen laburpena.

- **Eranskinak: Kale eta zonalde librearen txostenak**

Aztertutako kale-tarte eta zonalde libre guztien txostenak, tarteka antolatuak. Txosten hauek diagnostika, egokitzapenaren proposamena, proposatutako jarduketak eta horien aurrekontua dute.

- ARAUDIA

Bide publikoari aplikatu beharreko araudiari dagokionez, alde batetik, Autonomia Erkidegoko araudia daukagu: 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena. Bestetik, 2020an onartu zen Etxebizitza eta Toki Administrazio Sailaren 2020ko urtarrilaren 20ko AGINDUA, martxoaren 15eko 13/2007 Dekretuak onartutako 2. Arau Teknikoa aldatzen duena, irisgarritasuna sustatzearen eta oztopo arkitektonikoak kentzearen arloko garapenerako erregelamendu teknikoak arautzen duena. Arau horrek espazio publiko urbanizatu guztiek bete beharreko gutxieneko irisgarritasun-baldintzak ezartzen ditu.

Hala ere, duela gutxi, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak, 2021ean, uztailaren 23ko TMA/851/2021 Agindua onartu zuen. Agindu horren bidez, irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzei buruzko dokumentu teknikoak garatzen da, espazio publiko urbanizatuetan sartzeko eta espazio horiek erabiltzeko. Ministerio-agindu hori aplikatuko da bide publikoan erreferentzia-parametroak ezartzeko.

Horren ondorioz, Estatuko gutxienekoen araudia kontuan hartuta (TMA/851/2021 Agindua) egin behar dugu azterketa, 68/2000 Dekretuari dagokion eta aurretik indarrean zegoen araudi autonomikoa alde batera utzita.

2.- AZTERKETA EREMUA

Udaleko teknikariek ezarritako jakinarazpenetan ezarri zen jarduera-eremuaren arabera, analisiak udalerriko hirigunearen barruan interesgarritzat jo diren kale eta eremu libre guztiak hartzen ditu barne. Beraz, eta adostu zen bezala, azterketatik kanpo geratu dira hiriguneak kohesioa galtzen duen eta nagusiki landatarrak izatera pasatzen diren eremuak, edo argi eta garbi definitutako oinezkoentzako ibilbideen bidez erdigunearekin zuzenean lotuta ez dauden auzoak.

Ondoren, bide publikoko irisgarritasunarekin zerikusia duten alderdi nagusiak aurkezten ditugu, Plana lantzeko aztergaiak izan direnak:

Oinezkoentzako ibilbideak

Udalerria irisgarria bilakatzea da helburu, espaloia zabaltzea proposatuz, pertsona bat oinez eta beste bat gurpildun aurkian gurutzatu ahal izateko, edo espaloietan non oinezkoek era seguruan ezin duen ibili, plataforma bakarra sortuz; halaber, oinezkoentzako ibiak eraikiz galtzada mailan, hiri-altzari, seinaleztapen eta merkataritzarako elementuen berrantolaketa, betiere horiek guztiak galtzadaren aldeko muturrean jartzea saiatur. Halaber, irisgarriak ez diren elementuak kentzea proposatzen da, beharrezkoa den kasuetan, diseinu egokia duten beste batzuez ordezkatur.

Kaleetako luzerako maldak ibilbide baten irisgarritasunean duen eragina kontuan izanik, ezinbestekoa da hiria osatzen duten kaleen maldak ezagutzea. Horretarako, aldapen eskalaren arabera kode bat sortzen da, eta horren baremazioa araudiak ezartzen dituen irizpideen graduazioarekin lotuta dago zuzenean. Horrela, bide-tarteak klasifikatzeko momentuan hiru maila sortzen dira:

- %6 eta %8 tarteko maldak.
- %8 eta %12 tartekomaldak.
- %12tik gorako maldak.

Irisgarritzat hartzen dira %6tik beherako malda duten kaleak. %6 eta %8 malda duten kale- tarteak, araudiaren arabera irisgarriak izan gabe, pertsona gehientzat ibilgarriak dira. %8tik gorako malda duten kale- tarteak ez dira irisgarriak, edo gutxienez, oso deserosoak desgaitasunen bat duten pertsona gehientzat.

Nahiz eta %8 eta %12 tarteko malda duten kaleak ibilgarriak izan tarte motzetan, tarteak luzeak direnean mugikortasun arazoak sor daitezke pertsonentzat, horregatik bereiztea gomendatzen da %8tik beherako malda duten kale-tarteekiko.

Hiri luzerako malden sailkapenari esker, bizkor eta eraginkortasunez, irisgarriak ez diren kaleak identifikatzea ahalbidetzen digu, beraien malda handiagatik, eta aldi berean, hiri-eremuen arteko lotura irisgarria lortzeko ezar daitezkeen ibilbide aldizkakoak ere.

Bide sareak, etorbide, kale eta plazez osatuak, bi alderdi ditu; alde batetik, komunikazio eta garraio fluxuak bideratzea, eta aldi berean, interakzio soziala eta egoteko eremuak izatea eta indartzea. Bide hierarkia soilik jasaten den trafikoaren arabera egiten da, ondorengo motak bereiziz:

- Oinezkoentzako soilik diren bideak
- Partekatutako trafikoa duten bideak (oinezkoen erabilera lehenetsiz)
- Bereizitako trafikoa duten bideak, errail bat edo gehiago (espaloia eta galtzada bi maila ezberdinetan)

Oinezkoentzako soilik diren bideetan, oinez mugitzea da onartutako era bakarra, ibilgailu zehatz batzuen sarrera mugatua izan ezik, eta behar bezala antolatua, hala nola, larrialdietarako edo karga eta deskargarako. Espazio guztia oinezkoentzat da.

Partekatutako trafikoko bideak batera izateko bideak dira, plataforma bakarreko sekzioa dute eta oinezkoen lehentasunezko erabilera, oinezkoak eremu osoan mugitzea errazten duena, bide-sarearen etenek sortzen dituzten arazoak saihestuz, maila desberdineko sekzio konbentzional batekin, eta, aldi berean, espazio desberdinak sortu eta birbanatzeko aukera ematen duena, beste fluxu batzuekiko marruskadurak txikiagotuz, biak banatuz hiri-altzari zerrenda etenez edo antzekoen bidez.

Trafiko bide bereizidunak, espaloi eta galtzadadunak, trafikoaren erabateko bereizketa onartzen dute maila ezberdinetan eta zerrenda ezberdinetatik. Bi-bien interakzioa bidegurutzetan gertatzen da eta oinezkoentzako pasabideetan, diseinuan arreta berezi bat eskatzen dutelarik, irisgarritasuna ahalbidetzeko eta oinezkoen segurtasuna nabarmentzeko.

Bideen tipologia aukeratzeko momentuan zabalera da irizpide nagusia. Bidearen sekzioaren arabera oinezkoen zein ibilgailuen trafiko modu ezberdinak onartzeko gai izango da, baita hiri-altzari mota ezberdinak ere, aparkalekuak egotea edo ez egotea, eta abar.

Oinezkoen trafikoa eta ibilgailu-zirkulazioa bereizten diren bideetan espaloiak dira oinezkoentzako pasabideak. Oinezkoentzako zerrenda libre da espaloiko pasabiderako zatia, barruko partean kokatua fatxadarekin kontaktuan. Hiri-altzari guztiak edo oztopatzen duten edozein elementuak espaloiko kanpoaldeko zerrendan kokatu behar dira, pasabiderako zerrenda libre uzteko.

Trafiko berezia duten kale guztietako espaloiak aztertzen dira, ezarritako zabalera librearen betetzearen frogaketa gisa. Dauden espalo mota ezberdinak identifikatu dira eta horien kontserbazio eta mantentze egoera, horrela klasifikatuz:

- 2,00m-tik gorako zabalera duten espaloiak (araudiak ezarritakoa betetzen dute).
- 2,00m-tik beherako zabalera duten espaloiak (araudiak ezarritakoa ez dute betetzen)
- Plano batean eraikitako plataforma bakarra
- Espaloirik ez izatea.
- Urbanizatu gabeko kaleak.

Bide publikoan egoera zehatzak detektatu dira, horien ezaugarriengatik, oinezkoentzako edo kotxe batentzako nolabaiteko arriskua edo istripuak sor ditzakete, eta berehalako jarduketa behar dute.

Esku-hartzeak hierarkizatzeke eta zehatzago aztertzeke, lehentasun handiko eremuak ezarri dira. Horretarako, honako hauek hartu dira kontuan:

- Oinezkoen fluxu handieneko ibilbideak eta interes bereziko espazioak zeharkatzen dituztenak.
- Alde zaharrak.
- Eraikin publikoak kokatuta dauden eremuak.
- Merkataritza-intentsitate handieneko eremuak.
- Aisialdiko eta denbora libreko jardueren intentsitate handieneko eremuak
- Urbanizazioan biztanle-dentsitate eta antzinatasun handia duten auzoak.
- Adinekoentzako eta mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako gizarte-zerbitzuetako zentroak dauden eremuak.

Oinezkoentzako ibiak

Trafiko berezia duten kaleetan oinezkoentzako ibiak dira espaloi maila eta galtzada maila kontaktuan jartzen diren puntuak. Horiek ezinbestekoak dira mugikortasun zailtasunak edo/eta sentsorialak dituzten pertsonak egoki ibili ahal izateko.

Kaleetan ahal den gurutze-bide guztietan jarri behar dira. Oso luzeak diren kaleetan ibi tartekatuak jarriko dira. Diseinu irizpideak oso zorrotzak dira (ikusitako araudia) eta horren betetzean datza erabilera eta detekzio egokia.

Aztertzen dira trafiko berezia duten kale guztien espaloiak eta oinezkoentzako ibiak dauden bidegurutze guztietan begiratzen da. Horrela, ondorengo kasuak aztertzen dira:

- Oinezkoen ibi egokia
- Oinezkoen ibirik ez izatea: beheargune gabeko bidegurutzea.
- Oinezkoen ibi desegokia: erabilera egokia eta detekzioa bermatzen duten diseinu irizpide guztiak betetzen ez duen oinezkoen ibia.

Zonalde Libreak eta Espazio Publikoak

Hiri bilbean dauden espazio libre eta zonalde libreak aztertu dira ere. Esan nahi dugu bide publikoaren konfigurazioa osatzen duten hiri espazioak baina kaleak ez direnak. Besteak beste parkeak, plazak, lorategiak, eta antzekoak.

Nahiz eta hauen azterketa gainontzeko bide publikoen antzekoa izan, espazio hauek berariazko ezaugarri bat dute aipamen berezi hau justifikatzen duena: ibilbideen parte dira, eta berez, erreferentziatzeko elementuak dira horien konfigurazioan, baina, aldi berea, barne ibilbide propiodun espazioak dira eta pertsonak erabiltzen dituzte aisiarako, denbora pasarako eta antzeko ekintzetarako.

Zonalde libreen azterketa egin da, hau da, parke, lorategi eta espazio publiko nagusienak. Behin aztertu eta diagnosia eginda, egokitzapen soluzioak proposatzen dira, era honetan:

- Irisgarritasuna bermatzea aztertutako guneko ibilbide nagusietan, hauek dira puntu garrantzitsuetara eramaten dituzten ibilbideen kasua, hala nola, bankuetara, iturrietara, itzalguneetara, eta abar.
- Erabilera kolektiboa duten elementuak irisgarriak izan daitezen bermatzea, bankuak, iturriak edo paperontziak bezala, kasuan kasuko proposatuz horien egokitzapena, irisgarria denarengatik beste batez ordezkatzeta, edo erabilera bera betetzen duen elementu baten instalazio paraleloa, eta biztanleria osoarentzat irisgarria dena.

Aztertutako Kaleak eta Zonalde Libreak

Analisia egiteko hiriguneko interes puntuak identifikatu dira, eta puntu horiek lotzen dituzten ibilbide ezberdinak kokatu. Ondoren, hirigunea zonalde ezberdinetan banatu da, identifikatutako puntuak, hiriguneko kaleen trazadura eta kaleen arteko bidegurutzeak erreferentziatzat hartuz.

Kaleak tartetan banatu dira. Tarte bakoitza grafikoki identifikatzen da kartografian, zein kaletakoa den eta muturretan zein kalerekin gurutzatzen den zehaztuz.

Tarte bat, hurrengo hasita, kalea tipologiaz aldatzen den puntuetan amai daiteke (espaloiak desagertu egiten dira, oinezkoentzako bihurtzen da, urbanizatuta egoteari uzten dio, etab.), baina, oro har, tarte bat bidegurutze batetik hurrengora doan kale-tarte bat da, eta, beraz, beste tarte batzuekin gurutzatzen da.

Izenik gabeko kaleak daudenez, baita kaletxoak edo kalezuloak ere alboko beste kale batzuen edo antzeko beste kasu batzuen izena dutenak. Zenbait tarteren identifikazio bakarra ez da ofizialarekin zehazki bat datorren kale-izen bat, baizik eta "alboko" edo "eskailera" motako adierazpideak izan ditzake.

Edonola ere, Irisgarritasun Plana egiteko sakonki aztertutako kaleak eta eremu libreak taula hauetan aurkezten dira, eta dagokien planoan ikus ditzakegu (dokumentazio grafikoan, liburuki honen amaieran).

KALEA	TARTEA (Zk)	LUZERA (m)
BERJALDEGI PLAZA	1	130
EZTANDA ERTZ KALEA	1	69
GABIRIALDE KALEA	7	903
IBAIALDE KALEA	9	451
MAIORA PLAZA	1	46
MONSEÑOR IRIZAR ETORBIDEA	4	466

KALEA	TARTEA (Zk)	LUZERA (m)
MUXIKA EGURASTOKIA KALEA	2	122
SAKABANATUA	2	165
SAN ANDRES KALEA	6	389
ZUMALAKARREGI ETORBIDEA	10	423
ZUMARRAGA BIDEA	5	842
ZUMARRALDE KALEA	4	508
GUZTIRA		4.514m

Bestalde, azterketan Eremu Libreak ere sartu dira, bide publikoaren konfigurazioaren parte diren eta kaletzat hartzen ez diren hiri-espazioak baitira. Horixe da parkeen, pasealekuen, plazen, lorategien eta antzeko beste batzuen kasua. ORMAIZTEGIIn, Irisgarritasun Plana eguneratzeko aurrekontuetan honako eremu libre hauek aztertu dira:

Mota	IZENA
Parkea	IGERILEKUKO ZUHAIZTIA
Parkea	URBELTZ PARKEA
Parkea	PARKE BIOOSASUNGARRIA
Plaza	GABIRIALDE PLAZA
Parkea	SAN ANDRES PARKEA
Haur jolasak	MUXIKA EGURASTOKIA (JOLASAK)
Plaza	MUXIKA EGURASTOKIA (MUSEOA)
Plaza	MUXIKA EGURASTOKIA (PLAZA)
Pasealekua	SANTA LUTZIA PASEALEKUA (I)
Pasealekua	SANTA LUTZIA PASEALEKUA (II)

3.- ANALISIA ETA DIAGNOSIA

Irsgarritasun Unibertsaleko Plan Integral honen 1. liburukian jasotako deskribapenean adierazi den bezala, ORMAIZTEGI Goierri eskualdean dagoen udalerrria da. Udalerriko erdigunea pasabide batean dago, Beasain eta Zumarraga artean, bailara ixten duten bi gune alturen artean. Izan ere, herrigunea errepideen bidegurutze batean eratu den kasu tipikoa da.

INEren 2023ko datuen arabera, 1.228 pertsona bizi dira ORMAIZTEGIN.

Udalerrriaren egitura sozioekonomikoari dagokionez, ORMAIZTEGIN garatzen diren jarduera ekonomikoen sektore-banaketa honako hau da, EUSTATEN datuen arabera (2020ari buruzkoak, argitaratuen berrienak):

- Lehen sektorea (nekazaritza eta abeltzaintza): % 0,4
- Industria eta energia: % 84,9
- Eraikuntza: % 0,5
- Zerbitzuak: % 14,1

Jarduera ekonomikoen direktorioaren arabera (EUSTAT, 2023), jarduera ekonomikoetarako 90 establezimendu erregistratu dira sektore horietan guztietan.

ORMAIZTEGIko biztanleria aktiboa 530 pertsona ingurukoa da (Eustaten 2022ko datuak). Okupazio-tasa % 52koa da.

Udalerrian lanpostu ugari daudela ondoriozta daiteke, baina biztanleriaren zati bat beste herri batzuetara joaten da lan egitera. Beraz, lan egiteko adinean dauden eta udalerrian bizi diren pertsona batzuk egunero joan behar dute udalerritik kanpora lan egitera. Bestalde, udalerrian enpresa handi bat dago, egunero lanera joaten diren pertsonen trafikoa eragiten duena. Gainera, udalerriko irakaskuntza-eskaintzak egunero udalerrira handiagoetara joan beharra dakar institutura edo unibertsitatetara joateko. Herritarrak ere irten behar dira ORMAIZTEGItik eskaintzen ez dituzten beste kudeaketa eta erosketak egiteko.

Udalerrriaren irsgarritasunari begira, hori erabakigarria da; izan ere, zenbat eta oinez egin ezin diren desplazamendu gehiago egin, orduan eta handiagoa da ibilgailu motordunek bide publikoa okupatzeko beharra, eta hori oinezkoen kalterako da.

Gainera, Eustatek Euskal Autonomia Erkidego osorako egindako estatistiken arabera, 2012an ezintasun funtzionalaren prebalentzia biztanleriaren % 8,4koa zen. Datu hori ORMAIZTEGIko biztanle-kopurura estrapolatuta, ezintasun funtzionalak dituzten pertsonen guztizko kopurua 103 izango litzateke. Horrek pertsona guztientzako hiri bat planifikatu, garatu eta bermatzearen garrantziaren ideia ematen digu.

AURRE DIAGNOSTIKOA

Landa-lanaren aurreko azterketa horretatik hainbat ondorio garrantzitsu atera dira Irisgarritasun Plana egiteko Bide Publikoari dagokionez:

- Lekuaren orografiak hiri-egituraren trinkotasuna dakar berekin, eta, gainera, ez da neurritz kanpo hazi, fisikoki egin zezakeen arren. Horrek bi abantaila garrantzitsu ematen ditu udalerrirako irisgarritasunaren ikuspegitik: alde batetik, hiri-garapen gehienak haraneko eremu "lauan" kokatzen dira, eta, beraz, ez dago aldapa eginezinik egunerokotasuna zailtzen duen pertsonentzat. Bestalde, beharrezko esku-hartzeek (espaloiak eraikitzea eta/edo handitzea, eskaileretan esku hartzea, etab.) eragin ekonomiko txikiagoa izango dute ORMAIZTEGI bezalako udalerrri trinko batean, lurraldean gehiago hedatu izan balira baino.
- Motorizazio-maila eta herritarren garraio-beharrak kontuan hartuta, aurreikusten da ibilgailua menderatzea garrantzitsua izango dela udalerriko kaleetan. Gertaera hori oinezkoen eta ibilbide irisgarrien kalterako da beti, eta eragin zuzena du Planean. Herritarrek ez dute erraz bereganatzen ibilgailu pribatuen erabilerari buruz denboran zehar hartutako ohituretan gertatzen diren aldaketak, nahiz eta herritarren bizi-kalitatea modu kolektiboan hobetzea ekarri.
- Udalerrian atzemandako irisgarritasun-arazo garrantzitsuena ADIFen geltokirako sarbidea da, Udaletik dagoeneko aurreikusita dagoena. Gaur egun, aldapa handiko kale bat igo behar da, eta, azkenik, geltokira bertara iristen diren eskailera batzuk igo. Udalak badu aurreproiektu bat arazo hori konpontzeko, hiri-igogailu bat jarrita.

Aldez aurreko datu horiekin, landa-lanari ekingo diogu, ORMAIZTEGIko bide publikoaren irisgarritasunaren egungo egoera zehazteko eta, horrela, beharrezko esku-hartzeei buruzko erabakiak hartu ahal izateko.

Bide publikoaren diagnostikoa

Kalearen tipologiaren arabera, aztertutako bide publikoa honela banatzen da (ikus ORMAIZTEGIko bide publikoaren planoak, dagokion planoan kolore-kode batez irudikatutako tipologiaren arabera, Dokumentazio Grafikoaren barruan):

Espaloi bakarra eta galtzada: galtzada eta espaloia soilik alde batean duten tarreak.	1.822 m.	40,36 %
Espaloiak eta galtzada: galtzada eta espaloiak bi alboetan dituzten tarreak.	1.985 m.	43,97 %
Plataforma bakarra mistoa: oinezkoa /ibilgailua aldi berean erabiltzen duten bidea, sekzioan maila aldaketarik gabe.	164 m.	3,63 %
Oinezkoentzako plataforma bakarra: soilik oinezkoentzako bidea, sekzioan maila aldaketarik gabe.	543 m.	12,03 %

Metodologian azaldu den bezala, hiri elementu bat irisgarritasunaren diagnostikoa egiteko momentuan **bi parametro hartzen dira kontuan: kokapena eta diseinua**. Bi faktore horien konbinaketak erabakitzen du zein den irisgarritasun maila eta baita egin beharreko jarduketaren beharra erabaki ere.

Jarraian aurkezten den taulan, hiri-elementuen analisiaren emaitza orokorrak islatzen dira, irisgarritasunari dagokionez, kokapenaren arabera, hau da, fatxaden ondoan kokatuta, edo bide publikoaren estutze onartezinak sortzen dituzten lekuetan. Taula honetan, kokapen desegokia irisgarritasun-baldintza ezartzeko faktore erabakigarria duten hiri-elementuak baino ez dira jasotzen. Hau da, lekuz aldatu behar diren elementuak dira, beren posizio desegokiagatik bide publikoa irisgarria izatea eragozten dutelako.

Edukiontzia	1 u
Eserlekuak	37 u
Farolak	92 u.
Instalazio armairuak	4 u
Iturria	5 u
Jardinerak	4 u
Mutiloiak	11 u.
Paperontziak	3 u.
Postontzia	1 u
Semaforoa	4 u.
Soinurik gabeko semaforoa	4 u

Sute ur-hartuna	4 u.
Txorkoak	24 u
Zirkulazio seinalea	20 u.
Guztira	214 u

Gaizki kokatuta dauden elementu gehienak behar bezain zabalerarik ez duten espaloietan aurkitzen dira. Horrek eragiten du espaloi horietan dauden elementu guztiek ez izatea behar den distantzia fatxadetara, irisgarritasun gutxieneko parametroen arabera. Kasu askoetan gertatzen da ere hiri-altzariak libre egon behar diren fatxaden ondoan egotea.

Hiri-altzarien irisgarritasuna diagnostikatzeko beste funtsezko faktore bat diseinua da, eta ORMAIZTEGlen dauden hiri-altzari tipologia ezberdinen analisia eta balioztapena egin da. Azterketa hori hurrengo kapituluan garatu dugu.

Azkenik, irisgarritasunaren ikuspuntutik, oso garrantzitsuak diren hutsuneak edo gabeziak detektatu dira Bide Publikoetan egin den azterketan, eta jarduketa proposamenak egin dira Planean.

Adibidez, maldatsuak diren arrapalak edo eskaileratako tarteetan esku-banda edo eskudelak ez izatea araudia ez betetzeaz gain segurtasun arazoak sor ditzakete pertsonentzat. Seinaleztapen zerrenda edo alarma zoladura ez izatea (edo okerra izatea) oinezkoentzako ibilbideetan edo ibietan beste adibide bat da, eta asko kaltetzen die pertsona itsuei.

Zerrenda horiek 68/2000 Euskal Dekretuaren arabeko diseinu-eredu batzuei jarraitu behar zieten, eta eredu horiek aldatu egin dira Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren TMA/851/2021 Aginduaren bidez. Araudi-aldaketa horrekin, lehenengoaren arabera zoladura zuzenak ez izatea gertatzen da, bigarrena indarrean sartzen denetik. Horregatik jasotzen dira Planean oker gisa, baina erlatibizatu egin beharko da zoladura horietan esku hartzeko lehentasuna.

Babes baranda ez izatea	121 ml.
Eskudela ez izatea (arrapalak, eskailerak, maldak...)	112 ml.
Eskudela ez izatea(%6tik gorako maldetan)	441 ml

Eskaileran eta arrapaletan irtengunerik ez izatea	7 ml
Oinezkoentzako ibirik ez izatea	9 ud.
Seinale bertikal ez izatea zebra – bideetan	49 ud
Ukimen -seinaleztapen zerrenda ez izatea (ibiak, eskailerak, arrapalak...)	461 m ² .
Zerrenda zimurrik ez izatea eskaileretan	220 ml.
Zoladurarik ez izatea ibian, egokitzeko	34 m ²

Dokumentazio grafikoan, Liburuki honen amaieran, ORMAIZTEGIko bide publikoaren planoak ikus ditzakegu: alde batetik, kolore-kode baten arabera marraztutako kaleen tipologiaren irudikapen grafikoko planoak, eta, bestetik, % 6tik gorako maldak irudikatzen dituen beste plano bat.

Taulan ikus daitekeenez, % 6tik gorako maldak ORMAIZTEGIKO irisgarritasun-arazoetako bat dira. Oraindik ere kale batzuek malda handiagoak dituzte, eta arauz irisgarritzat jo daitezke, inolako egokitzapenik gabe (% 6tik gorako maldak eta arrapalak, bai eta egin beharreko arrapala berriak ere). Eskudelak jartzea baino ez da proposatzen. Gainera, zoladura egokirik ez duten eskailera, arrapala eta pasabideak daude ORMAIZTEGIIn, ukipenezko seinaleztapen-zerrendekin eta/edo ibilian laguntzeko eskudelekin.

Espaloiei dagokienez, espaloi batzuk ez dira behar bezain zabalak, eta ez dute araudiak ezartzen duen igarotze zabalera errespetatzen, oinezkoentzako ibilbideetan. Arazo hori batzuetan areagotzen da hiri-altzari elementuen presentziagatik, hala nola farolak, zuhaitzak, trafiko seinaleak edo paperontziak igarotze zabalera gehiago estutzen dute, eta horrela, askotan jarduketa garesti eta ganean hartzeko zailak onartzera behartzen gaituzte.

Oinezkoentzako ibien inguruan, araudiaren eskakizunetara egokitzeko ahalegina egin dela ikusi da. Hala ere, araudiaren aldaketa dela eta, kasu batzuetan zoladura ez da zuzena, 561/2010 Ministro Aginduaren eta ondorengo TMA/851/2021 Aginduaren onarpenaren ondorioz indargabetuta geratu den araudi autonomikora egokitzen baita, eta horrek eragina du pasabideen diseinuaren zuzenketan.

Era berean, ORMAIZTEGIko zonalde libreetan diagnostikatutako irisgarritasun problemak diseinu desegokiak duten hiri-altzarien aldaketarekin daude lotuak, eta bide irisgarrien ezarekin, bertan kokatuta dauden elementuez edozein pertsonak goza ahal dezan.

Ondoren, bide publikoetan aurkitutako egoeraren arazo aipagarrienak zehazten dira adibide gisa.

Hurrengo orrialdeetan, bide publikoan aurkitutako egoeraren arazo adierazgarrienetako batzuk zehazten dira, baita araudiak kasu bakoitzean eskatzen duenari buruzko erreferentzia bat ere. “Manual de Accesibilidad para Espacios Públicos Urbanizados del Ayuntamiento de Madrid. Versión 2022” eskuliburua erabili da erreferentziako eskema grafikoak hartzerakoan. Halaber aplikatu beharreko autonomia-erkidegoko araudia ere erabili da.

ESPALOIAK

Espaloiak izango dira ibilbide irisgarriak sortuko dituzten bide publikoko elementuak.

“Oinezkoen ibilbidea oinezkoen erabilerarako zonaren zati bat da, zehazki pertsonen joan-etorrietarako erabiltzen dena, pertsonen eta ibilgailuen artean partekatutako eremuak barne”, TMA/851/2021 Aginduaren arabera.


Oinezkoentzako ibilbide irisgarriak pertsonen erabilera eta zirkulazio segurua, eroso, autonomoa eta jarraitua bermatu behar du.

Oinezkoentzako ibilbide bat diseinatzerakoan, kontuan hartu behar bide publikoa erabilera bereiziko luzetarako banden bidez antolatuko dela: oinezkoentzako ibilbideak, hiri-altzariak eta ibilgailuen zirkulazioa/aparkatzea.



Bete beharreko parametroei dagokienez:

- Pasatzeko zabalera libre: 2 m
- Pasatzeko altuera libre: 2,20 m
- Luzetarako gehieneko malda: % 6
- Zeharkako gehieneko malda: % 2
- Zoladura jarraituak, irtengunerik gabeak, gogorak, egonkorak eta irristagaitzak lehorrean eta bustian.



Aztertzen ari garen kasurako, eta aipatutako irizpideak kontuan hartuta, espaloiekin eta oinezkoentzako ibilbideak sortzeari lotuta dagoen antzemandako arazo garrantzitsu bat **ibilbidearen jarraitutasunik eza** da, espaloi-zati bat baino gehiago ez dagoelako, edo espaloia estua den puntuak daudelako, edo egoera txarrean dauden espaloi-zatiak daudelako edo oinezkoei mugitzeko arazoak eragin diezazkieketen zeharkako maldak daudelako, gutxienez eragozpen bat izanik, estropezu egiteko arriskua ez bada ere.



Espaloiaren gainean oinezkoen ibilbiderik ez dago

Gainera, zenbait puntutan **espaloia estuegia** denez, zaila da oinezkoentzako ibilbide irisgarriak sortzea.



Espaloi estuak

Era berean, nabarmentzekoa da **espaloi-zatiak egoera txarrean** daudela, zoladura desegokia dutela edo zeharkako maldak dituztela, eta horiek oinezkoei mugitzeko arazoak edo estropezu egiteko arriskua eragin diezaieketela.



Zeharkako malda handiegia



Zoladura irisgaitza



Espaloia egoera txarrean

Espaloien problematika askotan larriagotu egiten da **gaizki kokatutako hiri-altzarien elementuak** daudelako, hala nola farolak, zuhaitzak, trafiko-seinaleak edo paperontziak. Elementu horiek are gehiago murrizten dute pasabideen zabalera, edo oztopoak sortzen dituzte fatxadaren aldean, makiladun pertsona itsuen orientazioa zailtzen dute, eta askotan kostu handikoak diren eta beren gain hartzeko errazak ez diren esku-hartzeak egitera behartzen dute (altzariak galtzadaren aldean lerrokatu behar dira, eta ez fatxadaren aldean, oinezkoen ibilbidea hartu gabe).



Gaizki kokatutako hiri-altzariak

Irisgarritasunarekin lotutako beste arazo bat da hiri-altzariak eta hiri-elementuak daudela, **diseinuagatik** iristezinak izan daitezkeenak, arriskuak edo estropezuak eragin ditzaketenak, edo, gutxienez, horiek erabiltzea eragozten dutenak, hala nola ingurunearekin maila berean ez dauden txorkoak, mutiloi baxuegiak, beso-euskarririk gabeko bankuak, lurreraino iristen ez diren zakarrontziak edo manipulazio-altuera handiegia duten edukiontziak, etab.



Txorko desegokiak





Gaizki diseinatutako hiri-altzariak

ESKAILERAK ETA MAILA ISOLATUAK


Eskailerek espazioak altuera desberdinetan komunikatzea ahalbidetzen dute, erabat irisgarritzat jo ezin daitekeen ibilbide bat sortuz, gurpil-aulkiak erabiltzen dituzten pertsonentzat ez baita egokia, baina, hala ere, segurtasun- eta funtzionaltasun-baldintza nahikoak bete behar ditu beste erabiltzaileentzat.

Indarrean dagoen araudiaren arabera bete beharreko parametroei dagokienez:

- Eskaileren zabalera librea: 2 m
- Ezin izango da maila isolaturik eraiki.
- Bozelik gabeko mailak.
- 35 cm-ko mailagainaren neurria eta 15 cm-ko kontramailarena.
- Zoladura irristagaitza lehorrean eta hezean.
- Eskudelen diseinu ergonomikoa, bi aldeetan, ibilbide osoan jarraituak eta altuera bikoitzean: 100 cm (goikoa) eta 70 cm (behekoa), paramentu bertikaletik 4 eta 6 cm arteko tartearekin. Gutxienez 45 cm luzatuko dira muturretan, eta behar bezala errematatuko dira.

- Eskailerak baranda edo petoen bidez babestea, 1,10 m-ko altuerarekin, alboko altuera 6 metrokoa edo handiagoa bada.

- Zoladurak: Ukipen-zoladura norabideduna eraman beharko dute martxaren zeharkako norabidean, 80 eta 120 cm arteko sakoneran eta eskaileraren zabalera berean, eskaileraren hasieran eta amaieran. Mailek zoladura-zerrenda zurruna izan beharko dute.



Aztertzen ari garen kasurako, badira elementu-osagarriak behar dituzten eskailerak, araudira erabat egokituta egoteko. Halaber, oinezkoentzako ibilbideetan maila isolatuak daudela aipatu behar da, eta horiek kendu ezean, oinezkoen joan-etorria zailtzen eta eragozten dutela. Halaber, arazo bat da babestu gabeko desnibelak aurkitzea, erortzeko arrisku-egoerak sortzen dituztenak.



Isolatutako mailak



Egokitu beharreko eskailerak

ARRAPALAK ETA MALDAK

Indarrean dagoen araudiaren arabera, % 6tik gorako malda oro arrapalatzat hartzen da. Arrapala bat ibilbide irisgarri baten zati bada, baldintza hauek bete beharko ditu:

- Arrapalaren gehieneko malda: % 8 ($L \leq 3$ m)/% 6 ($L \leq 9$ m).
- Gehieneko zeharkako malda: % 1,5
- Eskailera-bururik gabeko tarteen gehieneko luzera < 9m.
- Atalen zabalera: 2,00 m.
- Tranpalak: 2,00 m x 2,00 m.
- Zoladura irristagaitza lehorrean eta hezean.
- Eskudelen diseinu ergonomikoa, bi aldeetan, ibilbide osoan jarraituak eta altuera bikoitzean: 95 cm (goikoa) eta 75 cm (behekoa), paramentu bertikaletik 4 eta 6 cm arteko tartearekin. 45 cm luzatuko dira muturretan, eta katigatzeko arriskurik ez izateko moduan errematatuko dira.
- Alboko zokaloa, gutxieneko altuera: 10 cm.
- Ukipen-zoladura norabideduna hasieran eta amaieran, 1,20 m-ko sakonerakoa.

ORMAIZTEGIKO bide publikoaren egindako azterketan, **arrapalaren** bat aurkitu dugu oinezkoentzako ibilbideetan, eta egokitu egin behar da, bi altuerako eskubanda egokiak eta ukimen zerrenda jarritz. Malda handiegia duten eta berreraiki behar diren arrapalak ere badaude.



Egokitu beharreko zoladurak



Eraiki beharreko arrapala

Hiriguneko kale-zati batzuek **malda handiak** dituzte, % **6tik gorakoak**. Malda horiek egoteak mugitzeko zailtasunak eragiten dizkie adinekoei eta mugitzeko arazoak dituztenei, laguntza behar baitute tarte horietan ibiltzeko.





%6tik gorako malda- tartak

IGOGAIKUAK

Bide publikoan dauden igogailuek hainbat altueratan dauden ibilbideen artean ibilbide irisgarriak sortzeko aukera ematen dute. Ibilbide horiek arrapalen osagarri izan daitezke, edo aldapekin ezin da lortu, desnibel nabarmena dagoelako.

Igogailu horien diseinuari dagokionez, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Kabinak: 110 x140cm-ko atea dute.
- Bi ate nagusi dituzten kabinak: 110 x140cm
- Bi ate angelu zuzenean dituzten kabinak: 150 x 140cm
- Pasabide librearen zabalera: 90 cm
- Botoiak: 80 eta 120 cm arteko altueran egon behar dute. Kontraste kromatikoa duten zenbakiak, eta identifikatzeko braille eta goi-erliebea dutenak.
- Igogailua ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat identifikatu ahal izango da. Atearen kanpoko aldean ukipen-zoladurako zerrenda bat jarriko da, zoladura ildaskaduna homologatukoa eta kontraste kromatikoarekin. Neurriak: atearen zabalera eta 120 cm-ko sakonera.
- Kabinak soinu- eta ikusizko komunikazio-sistema bat izango du, erabiltzaileari geldialdiaren eta oin-kopuruaren berri emateko.



Dagokigun kasuan, ez dago hiri-igogailurik. Hala ere, egiten ari garen proposamenean proposatzen dugu igogailu bat eraikitzea ADIFen geltokira sartu ahal izateko. Hori da udalerrian irisgarritasunari begira planteatzen den esku-hartze garrantzitsuenetako bat, datozen urteetan garatu beharrekoa.

Une honetan, zaila da ADIFen estaziora sartzea. Alde batetik, udalerraren erdigunearekin lotzen duen kalearen malda oso handia da, eta, gainera, geltokira bertara sartzeko eskailera bat dago kale horren amaieran.

Udalak, gaur egun, irisgarritasun-arazo hori konpontzeko aurreproiektu bat dauka. Bertan jasotzen den bezala: "Udalaren jarduera honako hau izango da: udalerriko herrigunearen eta geltokiaren arteko bide eta oinezko-komunikazioko sistema orokorra egokitzea, oinezkoentzako ibilbide irisgarri eta bidegorri baten bidez, eta azken zatiaren desnibela gaindituko lukeen hiri-igogailu baten bidez; horrez gain, lehendik dagoenari laguntzeko errepide berri bat egingo da, azken hori aipatutako igogailuarekin komunikatuko duena, kotxeentzako 20 aparkaleku berri eta bizikletentzako 14 plaza sortuz."



Tren geltokira igotzeko egun dagoen eskailera, aparkalekuaren ondoan.

IBILGAILUENTZAKO IBIAK

Espaloiarene parte handi bat hartzen duten eta oinezkoen ibilbidean desnibelak sortzen dituzten ibilgailuentzako ibiak daudela ere ikusi da (ibi horiek berreraikitzea komeni da, oinezkoen pasabidea lehenetsiz ibilgailuen gainetik).

Ibilgailuen ibiak gutxienez 1,5 metroko pasabidea ahalbidetu behar du, zeharkako maldak ezingo du % 2 gainditu eta luzetarako maldak % 8.

Baldintza horiek errespetatu ahal izateko, askotan espaloia ibiaren luzera osoan beheratu behar da, eta hori ez da beti egiten, baimendutako maldak baino handiagoak sortuz.





Ibilgailuentzako ibiak

Gainera, oinezkoentzako **arriskua** sor dezaketen zenbait maila aldaketa aurkitu dira, eta komenigarria da kontrastedun zoladura zerrendaz seinaleztatzea edo/eta babes esku-banda bat jartzea istripuak saihesteko. Puntu horietan ez dago espaloiarekin lerrokatutako fatxadarik, eta arazo bat da ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzat, ezin baitute espalo horren ertza zein den hauteman. Muga seinaleztatzeko zoladurarekin seinaleztatuz gero, arriskuak saihestuko lirateke.



Erortzeko arriskua



Fatxada eza, zoladura adierazlearen beharra.

OINEZKOENTZAKO PASABIDEAK ETA IBIAK

Atzemandako beste irisgarritasun-arazo bat, bide publikoaren irisgarritasun-mailan duen eraginagatik nabarmentzen dena, espaloien arteko oinezkoen ibilbideek jarraitzeko beharrezkoak diren **oinezkoentzako pasabide** problematiko eta garrantzitsuen arazoa da.

Atal honetan adierazi behar dugu une honetan indarrean dagoen araudia honako hau dela:

- 68/2000 Dekretua (EAE): II. eranskina. 3. artikulua. 3.5 puntua.
- TMA/851/2021 Agindua, VI. kapitulua, 20. eta 21. artikulua, VIV/561/2010 Agindua (estatukoa) indargabetzen duena.

Kontraesanak daude bi arau horien artean, eta, horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden zebra-bide asko Dekretu autonomikoaren arabera gauzatu dira, baina ez datoz bat Estatu mailako Aginduaren eskakizunekin, eta hori da aplikatu behar dena.

Agindu horri jarraituz, zebra-bideak eskema honetan jasotako diseinuan doitu beharko dira:

- Bi mailetan dauden oinezko pasabideak:





Figura 9. Cruce a distinto nivel: ejemplo de aplicación de la señalización táctil en vados de tres planos inclinados

- Oinezkoentzako pasabide goratua:



Oinezkoentzako pasabidea bi noranzko galtzadan, zoladura norabideduna adierazita.

Aztertzen ari garen kasuari dagokionez, ikusi dugu kasu batzuetan **oinezkoentzako pasabideak gaizki diseinatuta** daudela (zeharkako malda desegokiak edo beherapen handiegia), eta beste kasu batzuetan oinezkoentzako pasabidea badago, baina ez dago ibirik (pasabidea egon beharko luketen tokian espaloiak ez daude beheratuta). Halaber, ikusi da bidegurutze batzuetan ez dagoela oinezkoentzako pasabiderik ere.



Ibirik gabeko pasabideak (espaloier-tza ez dago beheratuta)

Gainera, **egokitu gabeko oinezkoentzako zenbait pasabide** daude, eta, malda eta beherapenei dagokienez diseinu-baldintzak betetzen badituzte ere, ez dute ingurukoekin kontrastatutako alarma-zoladurarik eta VIV/561/2010 Ministerio Aginduan deskribatutako seinaleztapen-zerrendarik. Egokitzapen horiek garrantzitsuak dira itsuen edo ikusmen-arazo larriak dituzten pertsonen irisgarritasuna bermatzeko.

Gogoratu behar dugu ibiaren atzetik gutxienez 1,50 m-ko zabalera egon behar dela, edo bestela, espaloier osoa beheratu beharko da, baimendutako gehieneko maldak errespetatu ahal izateko. Zintarririk balego, zoladurarekin lotuta egon beharko litzateke. Gainera, araudiaren arabera seinaleztatze zoladurak jarri beharko dira.



Egokitu beharreko oinezkoen ibiak (zoladurak)

Ibietan gertatzen den beste arazo mota bat da gaizki beheratuta daudela, hurrengo irudietan ikus daitekeen bezala. Kasu batzuetan ibia gehiegi jaisten da eta galtzada kota altuagoan geratzen da. Beste kasu batzuetan, beherapena ez da espaloierko zintarriraino egiten.



Gaizki beheratutako ibiak (malda handiegia)

Halaber, gerta daiteke zeharkako malda handiegia izatea eta espaloia zabalera osoa hartzea fatxadaraino, oinezkoentzako ibilbideari eraginez.



Zeharkako malda handiegia espaloian.

Beste arazo bat araudiarekin bat ez datorren zoladura mota da. Lehen esan bezala, 2010ean Estatuko Etxebizitza Ministerioaren VIV/561/2010 Agindua argitaratu zen. Ondoren, 2021ean, TMA/851/2021 Agindua onartu da. Indarrean dagoen araua da, eta irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzak ezartzen ditu espazio publiko urbanizatueta iristeko eta horiek erabiltzeko. Estatu mailakoa da eskakizuna, eta aldaketa eragin du pasabideetako zoladura motan, arau autonomikoan ezarritakoaren aldean. Hori dela eta, udalerrian badira agindu honen aurreko arau autonomikora egokitzen diren pasabideak. Hala ere, etorkizuneko egokitzapenentarako, azken arau horretan emandako eskakizunak bete beharko dira. Hurrengo irudietan ikus daitekeenez, seinaleztatutako zoladura botoizkoa da eta TMA/851/2021 Aginduaren arabera ildaskatua izan beharko luke.



Norabidedun zerrenda eguneratu/ osatu



Oker eraikitako ibiak (Aurreko indarrean zegoen araudiaren arabaera eraikitako zoladura)

Azkenik, pasabide irisgarri batzuk aipatuko ditugu, indarrean dagoen araudiarekin bat datozenak, bai maldei eta neurriei dagokienez, bai zoladura seinaleztatzaileari dagokienez.



4.- HIRI-ALTZARI TIPOLOGIAK

Hiri-altzarien diseinu desegokiak, bere erabileran eragina izan arren, ez du bide publikoen irisgarritasun mailan eragiten, kontuan hartzen baditugu oinezkoentzako ibilbideak. Aintzat hartu dugu irisgarria ez den hiri-altzarien egokitzapena ez dela erabat lehenasunezkoa, gehienetan ordezkatu beharreko elementuak izanik. Elementu horien ordezkapena eraberritze naturala gertatzen denean egin daiteke. Horregatik, ordezkapen horri lotuta dauden kostuak ez daude ez aurrekontuetan ezta planaren proposatutako jarduketatan ere.

Hala ere, kontuan hartu dugu interesgarria dela Udaletxeak hiri-altzarien diseinuari buruzko diagnostikoa izatea; gogoan izan beharreko beste faktoreetako bat izan dadila elementu batzuk berritzeko momentuan, eta baita hiri-altzari berriaren diseinua aukeratzeko momentuan ere. Azkenik, adierazten dugu elementuak ordezkatzeko elementu irisgarriengatik gomendagarria den ala ez.

Jarraian, hiri-altzari onargarrien irudiak erakutsiko ditugu, araudiaren arabera.

Txosten honetan aztertu ditugun hiri-altzariak edo hiri-elementuak hauek dira:

- Txorkoak
- Txirrindu- aparkalekuak
- Bankuak / eserlekuak.
- Suteetako ur-harguneak
- Mutiloiak.
- Edukiontzia.
- Iturriak.
- Jardinerak.
- Paperontziak.

TXORKOAK

Irisingarritasuna Sustatzen duen Legeak, bere eranskin teknikoetan azaltzen du oinezkoentzako ibilbideetan kokatuta dauden zuhaitzen txorkoak inguruko zoladurarekin berdindutako elementuekin estaliko direla. Elementu hauek tarterik gabe ipiniko dira, pertsonak edo ibilgailuak gainetik igarotzearen eraginez ez deformatzeko moduan.

Burdinsare-itxiturarik izanez gero, irristakaitzak izango dira, lehorrean nahiz bustian; koadrikulatuak izango dira eta 1 x 1 cm-ko gehieneko irekidura izango dute oinezkoentzako ibilbidearen gutxieneko zabalera badaude eta 2,5 x 2,5 cm-koa zabalera horretan ez badaude.

Oinezkoentzako ibilbidearen gutxieneko zabalera sartzen diren txorkoak bide publikoa egokitzeko proposamenetan azaltzen dira, beraz, erreferentziatzat 2,5 x 2,5 cm-koa zabalera duen saretoak hartu ditugu.

Irizpide hori kontuan hartuta, esan dezakegu honako txorko hau irisingarria dela, baina saretutako elementuaren baoek arauan ezarritakoa baino dimentsio handiagoa dute, ez baitira karratuak.




BANKUAK

Indarreko araudiak dionez, erabilera publikoko espazio libreetako bankuek 40cm-tik 50era bitarteko altueran izango dute eserlekua. Gainera, bizkarraldea eta beso-euskarriak izango dituzte eserlekuaren mailatik 20-25 cm-ko altueran. Bizkarraldea izan beharko dute 40cm-ko altueran gehienez. Proposamena ordezkatzearen aldekoa den kasuetan, jarraian adierazten duguna kontuan izan beharko da:

*. Nahiz eta banku modeloaren aldaketa proposatu, bankuak dauden tokietan araudiak ez du derrigortzen egokitutako bat jartzea, soilik bat 50m-ero gehienez jarri beharko da. Beste motatako bankuak ere erabili daitezke, betiere irisgarriak direnen osagarri gisa, eta esertzea eta altxatzea errazten duten baldintza ergonomikoak izanik.

Halaber, nahiz eta beso-euskarriak galdagarriak izan, gerta daiteke beti ez izatea beharrezkoak, batzuetan kaltegarriak izan daitezke ere, alboko transferentzia saihesten baitute gurpildun aulkitik. Horregatik, egokiena da beso-euskarriak duten bankuak eta beso-euskarri gabekoak aldizka kokatzea, edo bestela, beso-euskarriak eraisgarriak izatea.

Irizpide horri jarraituz, jarraian azaltzen diren bankuak irisgarritzat jotzen dira, beso-euskarriak baitituzte. Gainera, garrantzitsua da eserlekuaren eta bizkarraldearen altuera egokia dela egiaztatzea.





SUTEETAKO UR-HARGUNEAK

2,20 m-tik beherako altueran kokatutako edozein elementu finko edo mugikor lurreraino iritsiko da oinplano-proiektiorik handienarekin. Elementu hauen tamaina eta forma aldetik mutiloiekin duen antza kontuan izanik, hauek ere ikusgaiak izan beharko dute bolumena eta koloreagatik.

Irizpide horri jarraituz, sute-hargunearen eredu hauek irisgarritzat jotzen dira:



MUTILOIAK

Irisingarritasuna sustatzeko araudiak, bere gehigarri teknikoetan, adierazten du erabilera publikoko espazio libreetan jartzen diren mutiloi edo mugarriek ondo ikustekoak izateko modukoak izango direla, bai eta bertan trabatzeko zailak ere. Halaber, ez dituzte hegalik izan behar eta ez dituzte irtengunerik izango eta lurreraino iritsiko dira oinplano-proiekzioz handienarekin. Bere altuera 75 eta 90 cm bitartean izango da eta gutxieneko diametroa 10cm-koa.

Irizpide horri jarraituz, mutiloiaren eredu hauek irisingarritzat jotzen dira:



EDUKIONTZIAK

Indarrean dagoen araudiaren arabera, lurperatutako edukiontzien ahoa 70 eta 90 cm bitartean egon beharko du, inguruko zoladuran maila aldaketarik gabe.

Lurperatu gabe dauden edukiontzien ahoko behe parte gehienez 140 cm-ko altueran egongo da, eta manipulagarriak diren elementuak 90 cm-ko gutxieneko altueran.

Edukiontzi guztiak kokapen finkoa izango dute (ikusmen-urritasuna duten pertsonen beraien kokapena ezagutzea laguntzen die), eta inoiz ez dute ibilbide irigarri bat hartuko, horietatik irisgarriak izango dira, baina manipulaziorako gunea okupatu gabe.

Irizpide horiek kontuan hartuta, udalerrian edukiontzi batzuk irisgarriak dira, ahoa altuera egokian dagoelako, eta beste batzuk ez arrazoi beragatik, hau da, ahoaren altuera altuegia delako. Manipulazio-elementuaren altuerari dagokionez, oinarekin manipulatzeko direnak ezin dira irisgarritzat jo, eta altuera handiegia dutenak ere ez.



Ahoaren altuera, 1,50m. Ez da irisgarria.



Ahoaren altuera, 1,45m. Ez da irisgarria.



Ahoaren altuera eta manipulazio-gailua 1,45 m. Ez da irisgarria.



Ahoaren altuera, 1,30 m eta hankarekin irekitzen da. Ez da irisgarria.



Ahoaren altuera, 1,20m Irisgarria



Ahoaren altuera, 1,40m Irisgarria



Altuera 1,40 m. Irisgarria da ez baitago manipulatu beharreko elementurik.

ITURRIAK

Araudiaren arabera, edozein erabiltzaileri hurbiltzea eragotziko dion maila-aldaketarik ez da egongo eta erabilerarako 1,5m-ko zirkulua inskribatu ahal izango da iturriaren parean.

Eragingailua eskuzkoa bada, gehienez 90 cm-ra kokatuta egongo da eta manipulatzeko zailtasunak dituzten pertsonak erabiltzeko modukoa. Txorrotaren altuera lurretik 80 eta 90 cm artekoa izango da.

Hustubide-saretoak instalatzen direnean, irristakaitzak izango dira (lehorrean nahiz bustian) eta 1 cm-ko gehieneko irekiera izango dute. Hori ez da gertatzen, saretek, normalean, hutsune handiagoak izaten baitituzte. Hala ere, hurrengo tauletan, inguruabar hori ez da iturria ordeztzeko erabakigarritzat hartzen.

Irizpide horiek kontuan hartuta, udalerrian iturri batzuk ez dira irisgarriak



Gurpil-aulki batean egonda ezinezkoa da iturrira iristea.

Honako iturri hauek irisgarriak dira, edonork erabili ditzakeelako:



JARDINERAK

Irisingarritasuna sustatzeko legeak, bere gehigarri teknikoetan adierazten du 2,20 m-tik beherako altueran kokatutako edozein elementu finko edo mugikor lurreraino iritsiko dela oinplano-proiekzioz handienarekin. Erraz ikusteaz gain, sekzio jarraitua izango dute bere altueran.

Irizpide hori kontuan hartuta, jardinerak hauek irisingarritzat jotzen dira, ez baitute hegalki eta haien altuera zuzena baita.





PAPERONTZIAK

Indarrean dagoen araudiaren arabera, paperontzien ahoak gehienez 90cm-ko altueran jarriko dira, kokatuta dauden paramentutik irtendako edota hurbiltzea eta erabiltzea zaildu dezaketen oztopo edo ertzik gabe.

Irizpide hori kontuan hartuta, paperontzi hau ez da irisgarria izango, ez baitute dimentsio osoko proiektiorik lurzoruan:



Hala ere, hurrengo paperontziak irisgarriak izango dira; izan ere, lurreraino luzatzen dira, oinplanoko proiektiorik handienarekin, eta ahoaren altuera lurretik 90 cm baino gutxiagora dago.



5. JARDUKETA - PLANA

5.1.- ESKU-HARTZE PROPOSAMENA

Esku-hartze proposamenak zehazten ditu hiri bide-guneak, selekzio irizpideak aplikatu ostean, eta *ORMAIZTEGI*ko honako *Irisingarritasun Unibertsaleko Plan Integralaren Bide Publikorako Jarduketa- Planaren* parte izango dira. Zonalde hauek, esan bezala, ibilbideak (irisingarritasun zirkuituak ere deiturik) osatzen dituzte udalerrriaren bide publiko gehieneko irisingarritasuna bermatzen dutenak, proposatutako egokitzapenak gauzatu ondoren.

Esku-hartze proposamenak bi zati ditu, alde batetik ibilbideak eta hiri-bideko guneak *Lau Urteko Irisingarritasun Plana* osatzen dutenak eta ondoren zehazten diren lehentasunen barne daudenak, hau da, Irisingarritasun Planaren lehen etapetan egingo diren esku-hartzeak (lehen lau urtekoa), eta bestetik *Ondorengo Faseak* atalean dauden ibilbideak, hau da, lehentasuneko etapak gauzatu ondoren egingo diren esku-hartzeak.

Irisingarritasun Unibertsaleko Plan Integralaren barruan, behar diren esku-hartzeak askotarikoak dira. Esku-hartze nagusia ADIFen geltokirako sarbide irisingarri bat egitea da, igogailu bat instalatzea barne, lehen adierazi den bezala. Hala ere, beste esku-hartze batzuk ere beharrezkoak dira.

Halaber, eskailerak arauari egokitzea proposatzen da, eta gehiegizko malda duten tarteetan, ibilera erraztuko duten eskudelak jartzea proposatzen da. Era berean, gaizki diseinatutako ibietan esku hartzea eta ibilbide irisingarriak sortu ahal izateko beharrezkoak direnak sortzea proposatzen da. Gainera, espaloi-zatiak eraikitzea proposatzen da.

